

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

5140

EBAZPENA, 2025eko urriaren 23koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2025eko urriaren 21eko Ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2020ko abenduaren 17an eman zuen Ebazpenaren hamaseigarren oinarriarekin bat etorritik (ebazpen horren bidez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egin zen; 2021eko urtarrilaren 11ko EHAA, 5. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, ondoko hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jakinarazten da 2025eko urriaren 22an argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Segurtasuneko sailburuordearen 2025eko urriaren 21eko Ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Bigarrena.— Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dezakete Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 23a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.